

# Landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko programa

NextGenerationEU

Enplegurako Prestakuntza / Formación para el Empleo

# Landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko programa

*EBAZPENA, 2021eko abenduaren 21ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko programa garatzeko laguntzen deialdia, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan. (EHAA, 2021/12/31)*

*EBAZPENA, 2022ko urtarrilaren 12koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez ebazpen honen huts-zuzenketa egiten baita: Ebazpena, 2021eko abenduaren 21ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko landa- eta hiri-hiriguneetako emakumeei laguntzeko programa garatzeko laguntzen deialdia, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan. (EHAA, 2022/01/25)*

*EBAZPENA, 2022ko otsailaren 1ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez ebazpen honen huts-zuzenketa egiten baita: Ebazpena, 2021eko abenduaren 21ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko landa- eta hiri-hiriguneetako emakumeei laguntzeko programa garatzeko laguntzen deialdia, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan. (EHAA, 2022/03/04)*

## Landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko programa

DEIALDIAREN EGOERA: Eskaerak aurkezteko epea 2022ko urtarrilaren 17an hasi zen eta **2023ko irailaren 29an amaituko da**. (Gauzatzeko aldia: 2022-2023).

BALIABIDE EKONOMIKOAK: 773.662 euro. Kantitate hori handitu daiteke Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planetik funts berriak jasoz gero.

DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA: **eskaerak aurkezteko hurrenkeran** emango dira aurrekontu-kreditua agortu arte.

## ENTITATE ONURADUNAK

- Foru-aldundiak eta foru-sektore publikoa.
- EAEko udalak eta tokiko sektore publikoko entitateak.
- EAEko sektore publikoko entitateak.
- EAEko tokiko edo eskualdeko garapenerako agentziak eta horiekin lotutako entitateak.
- Hezkuntza Sailaren edo Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren mendeko prestakuntza-entitateak.
- Irabazteko asmorik gabeko entitate juridikoak, EAEn diruz lagundutako jarduera burutzeko baliabide egokiak dituztenak eta langabetuei beren enplegarritasun-profilaren araberako laguntza emateko ekintzetan – besteren edo norberaren konturako laneratze prozesuetan– esperientzia dutela egiaztatzen dutenak.

## **PROGRAMAREN HARTZAILEAK:** Emakume langabeak, prestakuntza- edo lan-kualifikazio edo -birkualifikazioaren beharra dutenak.

Kualifikazioaren beharra: emakume batek kualifikazioa behar duela ulertuko da, ez badu lan-sektore konkretu batean lanbide batean jardutea ahalbidetzen dion profesionaltasun-ziurtagiririk, derrigorrezko bigarren hezkuntzako graduatu-titulurik, erdi-mailako edo goi-mailako lanbide-heziketako titulurik edo unibertsitateko titulaziorik.

Birkualifikazioaren beharra: emakume batek birkualifikazioa behar du, profesionaltasun-ziurtagiri bat, derrigorrezko bigarren hezkuntzako graduatu-titulu bat, erdi-mailako edo goi-mailako lanbide-heziketako titulu bat edo unibertsitateko titulazio bat izan arren, titulu horiek hautaketa-data baino 5 urte lehenago lortu badira, eta bere lan-bizitzaren agirian ez badago ikasketa arloarekin zuzenean lotuta dagoen kontraturik, programan sartu aurreko urtean; ondorioz, jarduera egiteko ikasketa horiek behar dituela ulertuko da.

## PARTE-HARTZAILEEN BIZILEKUA

- Emakume langabe, batez ere, 5.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi direnek, eta prestakuntza edo lanbidea lortu edo aldatzeko beharra dutenek lehentasuna izango dute. Proiektu bakoitzean parte hartzen duten pertsonen % 35 izango dira, gutxienez
- Lurralde-eremuari dagokionez, udalerrien % 35, gutxienez, 5.000 biztanletik beherakoa izango da.

## PROIEKTUAK ETA IBILBIDEAK

1. **IBILBIDE**en programazioaren bidez emakume langabeei arreta integratua eta banakakoa laguntzen da.
2. Entitate bakoitzak proiektu bakar bat aurkeztu ahal izango du.
3. Entitateek irakatsi nahi dituzten prestakuntza-espezialitateetan egiaztatuta eta/edo inskribatuta egon behar dute, eskaera egin aurretik.
4. Proiektuetan parte-hartzaileen **gutxieneko kopurua 8koa** dela kontuan hartuko da.
5. Proiektua onartu eta bi hilabeteko epean hasi beharko da.
6. Bana-banako ibilbideak gehienez ere 6 hilabetekoak izango dira.
7. Ibilbidera gutxienez bi bisita egiten saiatuko da, bat hasieran eta bestea amaieran.

**DIRUZ LAGUNTZEKO MODUKO JARDUERAK.** Ibilbideek honako jarduera hauek barne har ditzakete:

- Enplegarritasunaren diagnostikoa eta laneratzeko ibilbide pertsonalizatua
- Lan-orientazioko ekintzak
- Kualifikazio eta birkualifikaziorako prestakuntza-ekintzak. Parte-hartzaile **guztiek** honako **prestakuntza-espezialitateetako bat** gutxienez ikasi beharko dute:
  - FCOI06: Oinarrizko kompetentzia digitalen hastapenak
  - FCOI07: Enplegurako oinarrizko kompetentzia digitalak
  - FCOI08: Ekintzailetzarako oinarrizko kompetentzia digitalen hastapenak
- Zeharkako kompetentzien tailer-saioak
- Laguntzea ibilbide pertsonalizatuan zehar
- Lurraldeko lan-merkatuaren azterketa

**Ezingo da hirugarrenik azpikontratatu.** Onuradunek zuzenean gauzatuko dituzte ekintzak.

## Landa- eta hiri-inguruneetako emakumei laguntzeko programa

Proiektuek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- ❖ Parte-hartzaileen % 35ek bana-banako ibilbidea jarraituko dute, konpetentzia eta enplegu **berdeak** lortzea helburu.
- ❖ Parte-hartzaileen % 35ek bana-banako ibilbidea jarraituko dute, konpetentzia eta enplegu **digitalak** lortzea helburu.
- ❖ Programa gauzatzeko sortutako bana-banako ibilbidean parte hartzen duten emakumeen % **20k**, gutxienez, **lanbideratzea** lortuko dute, norberaren edo besteren konturako.

## Laguntzaren zenbatekoa

- Artatutako emakumeko jasotako zenbatekoa **1.715 euro** izango da

**Arreta hartu duen pertsonatzat** jotzeko, egiaztatu beharko da banakako ibilbidean honako jarduera hauek garatu direla, gutxienez:

- Enplegarritasunaren diagnostikoa
- Laguntza
- Kualifikazio eta birkualifikaziorako prestakuntza-ekintzak; hauetako ba, gutxienez:
  - FCOI06: Oinarrizko kompetentzia digitalen hastapenak
  - FCOI07: Enplegurako oinarrizko kompetentzia digitalak
  - FCOI08: Ekintzailetzarako oinarrizko kompetentzia digitalen hastapenak

## Laguntzaren zenbatekoa

- Besteren kontura laneratu den partaide bakoitzeko **2.500 euro** gehituko dira.
- Laneratzea norberaren kontura bada, orduan **6.000 euro** gehituko dira.

Parte-hartzailea **laneratutzat jotzeko**, honako baldintza hauek bete behar dira:

- a) Aurretik arreta, laguntza, jaso behar izan du.
- b) Kotizatutako egunen gutxienerako epea 90 egunekoa izango da; egun horiek jarraian ez badaude, gehienez 5 hilabeteko epekoak izan behar dute, lehenengo kontratazio-aldia hasten denetik edo norberaren kontura jarduten hasten denetik aurrera.
- c) Lanaldi partzialeko kontratuei dagokienez, gutxienez lanegun erdikoak onartuko dira bakarrik, eta lanaldi partzial bakoitza kotizatutako lanaldi osoko egunaren % 75 balitz bezala zenbatuko da.

## Laneratzea honako eremu hauetara zuzenduko da:

- a) Enplegu verde eta digitalak, lehentasunez
- b) Iraupen luzeko zainketak
- c) Ekintzailtza eta gizarte-ekonomia
- d) Energia berriztagarriak, uren eta hondakinen tratamendua
- e) Ingurumena errespetatzen duten basogintza eta nekazaritza
- f) Ekonomia zirkularra
- g) Zerbitzuen digitalizazioa
- h) Onlineko merkatariza-jarduerak
- i) Teknologia, landa-inguruneen garapena –tokikoa eta iraunkorra-, lurralde-kohera (ondarearen kudeaketa, turismo-jarduera, tokikotasunaren dimentsioa eta dimentsio berdea duten ekintzailtza eta gizarte-ekonomia, produktu endogenoei lotutakoak)
- j) Kohesio soziala (mendetasunari arreta ematea eta kolektibo kalteberekini esku-hartzeak)

## Eskatzea, Ebaztea eta justifikatzea

- ✓ Eskabideak modu elektronikoan aurkeztuko dira, LanF aplikazioa erabiliz.
- ✓ Eskabideak ebazteko eta ebazpenak jakinarazteko gehieneko epea bi hilabetekoa da.
- ✓ Proiektua gauzatzea bi hilabeteko epean justifikatuko da, jarduerak amaitzen direnetik. Justifikatzean honako agiri hauek aurkeztu behar dira:
  - Dirulaguntza ematean ezarri ziren baldintzak bete diren justifikatzen duen memoria:
    - Artatuen izaera lortu duten parte-hartzaileen bana-banako ibilbidearen ziurtapena
    - Formalizatutako kontratuak eta langile autonomo gisa egindakoak egiaztatzeko ziurtagiriak
  - Memoria ekonomikoa, lortutako emaitzen arabera:
    - Artatutzat jotzen diren parte-hartzaileen kopurua
    - Artatutako eta besteren konturako laneratuen izan diren parte-hartzaileen kopurua eta ehunekoa
    - Artatutako eta norberaren konturako laneratuen izan diren parte-hartzaileen kopurua eta ehunekoa
    - Konpetentzia eta enplegu berdeak lortzea helburu duten ibilbideen kopurua
    - Konpetentzia eta enplegu digitalak lortzea helburu duten ibilbideen kopurua

## Laguntzaren ordainketak:

- Lehen ordainketa: proiektuari dagokion dirulaguntza osoaren % 60, lehen jarduera hasi dela jakinarazi ostean.
- Bigarren ordainketa: dirulaguntzaren gainerako zatia, jarduera guztiak amaitu eta justifikatu ostean

## Dirulaguntza itzultzea:

- Jasotako zenbateko osoa: laneratze-konpromisoaren ehuneko 25etik beherakoa bada, osorik itzuli beharko da.
- Jasotako zenbateko partziala: % 25en eta dirulaguntza emateko ebazpenean eskatutakoaren artekoa bada, itzuli beharrekoa ez-betetzearen ehunekoaren proportzionala izango da.

# *Eskerrik asko*

